LASARTE-ORIA

| | |
|---|---|
| LASARTE-ORIAKO UDALAREN ETA EDP COMERCIALIZADORA, S.A. (EDP) ENPRESAREN ARTEAN LANKIDETZAN ARITZEKO HITZARMEN-PROPOSAMENA, ENPRESA HORREK LASARTE-ORIAKO UDALERRIAN DITUEN ETA ZAURGARRITASUN-EGOERAN AURKITZEN DIREN BEZEROAK BABESTEARREN | PROPUESTA DE CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA, Y EDP COMERCIALIZADORA, S.A. (EDP) PARA LA PROTECCIÓN DE LOS CLIENTES DEL MUNICIPIO DE LASARTE-ORIA, CLIENTES DE ESTA EMPRESA, QUE SE ENCUENTREN EN SITUACIÓN DE VULNERABILIDAD |
| Lasarte-Orian, 2016ko azaroaren 22an | En Lasarte-Oria, a 22 de noviembre de 2016 |
| ELKARTU DIRA | REUNIDOS |
| Alde batetik, Jesús Mª Zaballos de Llanos jn., Lasarte-Oriako Udaleko Alkate gisa (IFK: P-2009500-F), hitzarmen hau sinatzeko baimena duenez, legeak ezarritakoarekin bat etorriz, bere kargua betez eta esleituak dituen ardurak bere gain hartuz esku hartzen duela. | De una parte, Don Jesus Zaballos de LLanos, en calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con CIF nº P.2009500-F, autorizado para la firma de este convenio conforme determina la ley, interviniendo en función de su cargo y en el ejercicio de las atribuciones que tiene conferidas. |
| Eta bestetik, Carlos Luengo Álvarez jn., N.A.N. zk. [redacted] izanik, Eragiketen eta Bezeroarentzako Zerbitzuen Zuzendari gisa, "EDP COMERCIALIZADORA, S.A.", "EDP ENERGÍA S.A.U." eta "EDP COMERCIALIZADORA ÚLTIMO RECURSO S.A." (aurrerantzean EDP) enpresaren izenean eta ordezkari gisa, [redacted]. | Y de otra parte Don. Carlos Luengo Álvarez, con D.N.I. [redacted], en calidad de Director de Operaciones y Servicios al Cliente, en nombre y representación de "EDP COMERCIALIZADORA, S.A.", "EDP ENERGÍA S.A.U". y "EDP COMERCIALIZADORA ÚLTIMO RECURSO S.A." (en adelante EDP), [redacted], [redacted] |

| Aldeek Hitzarmen hau izenpetzeko beharrezkoa den gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta | Las Partes, reconociéndose recíprocamente la capacidad necesaria para suscribir el presente Convenio, |
|---|---|
| **ADIERAZTEN DUTE** | **EXPONEN** |
| I. Lasarte-Oriako Udala, bizilagunen komunitateak dituen premiak eta asmoak asetzeko helburu orokorra bete nahirik, eta gizarte-premiazko egoerei eta gizarte-bazterkeriazko egoeran edo arriskuan dauden pertsonei arreta eskaintzearekin loturik dituen eskumenak erabiliz (Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluaren 1 eta 2.e) apartatuak), beharrezko ikusten du ahalegin ekonomiko berezi bat egitea, aurrekontu-izendapenaren arabera, udalerrian bizi diren eta gizarte-premia handienean aurkitzen diren pertsonek elektrizitatearen eta gasaren hornidura etengabe eskuratu ahal izan dezatela bermatzeko. | I. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria, en cumplimiento de su finalidad general de satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal y en el ejercicio de sus competencias en materia de atención a situaciones de necesidad social, y a personas en situación o riesgo de exclusión social (apartados 1 y 2.e) del artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local), considera necesario realizar un esfuerzo económico, según consignación presupuestaria, específico encaminado a asegurar a las personas más vulnerables residentes en el término municipal el acceso continuado al suministro de electricidad y de gas. |
| II. Beste alde batetik, EDPk konpromiso irmoa du zaurgarritasun-egoeran aurkitzen diren kontsumitzaileak babesteko, eta arrazoi horregatik, arlo horretan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz dituen obligazioak ezin zorrotzago betetzeaz gain, eta bere enpresa-jardunaren ardatz diren elkartasunezko eta komunitatea zerbitzatzeko printzipioen adierazpide gisa, eta, halaber, duen gizarte-erantzukizunetik ondorioztatzen diren konpromisoen bidetik, kontsumitzaile horiek babestea muturreraino eramango duten hitzarmenak Herri Administrazioekin izenpetzeko borondatea erakutsi du. | II. Por su parte, EDP está firmemente comprometida con la protección de los consumidores en situación de vulnerabilidad, razón por la que, adicionalmente al estricto cumplimiento de sus obligaciones de conformidad con el vigente marco normativo en la materia, y como expresión de los principios de solidaridad y de servicio a la comunidad que inspiran su actuación empresarial y en el marco de los compromisos derivados de su responsabilidad social, ha mostrado su disposición a suscribir con las Administraciones Públicas convenios encaminados a extremar la protección de |

Horren ondorioz, bi aldeek bere gain hartu dute arestian aipatutako interes komuneko helburuak azken burura eramateko konpromisoa, eta hori dela eta, ondorengo baldintzak adostu dituzte:

BALDINTZAK

LEHENA.- Hitzarmen honen helburua

Hitzarmen honen xedea Lasarte-Oriako Udalaren eta EDPren artean koordinaziorako mekanismoak finkatzea da, Bigarren Baldintzan definitutako Onuradunei faktura jakin batzuk ez ordaintzeagatik elektrizitatearen edo gasaren hornidura eseki diezaietela eragozten ahalegintzeko edo, esekitzen zaienean, lehenbailehen berrezarri diezaietela bermatzeko, Lasarte-Oriako Udalak Onuradunari dagozkion fakturak ordaintzeko emango dion laguntza sozialeko prestazio ekonomikoaz baliatuta, betiere legez ezarritako baldintzak betetzen baditu eta faktura horiek ordaintzeko kreditu egokia eta nahikoa baldin badago.

BIGARRENA.- Onuradunak

1. Hitzarmen hau EDPren bezero diren pertsona fisikoei aplikatuko zaie, Lasarte-Oriako udalerrian kokatutako beren ohiko etxebizitzan elektrizitatearen edo gasaren hornidurarekin loturik, baldin eta, Udaleko Gizarte Zerbitzuek aldez aurretik balioespen teknikoa eta eskaera eginik eta kontuan izanik muturreko zaurgarritasun ekonomikoko egoeran aurkitzen direla, objektiboki hala egiaztatu ondoren, Lasarte-Oriako Udalaren partetik laguntza ekonomikoa jasotzeko

tales consumidores.

En consecuencia, ambas partes asumen el compromiso de llevar a buen fin los objetivos de mutuo interés mencionados, y en su virtud convienen las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto del presente Convenio

El presente Convenio tiene por objeto establecer los mecanismos de coordinación entre el Ayuntamiento de Lasarte-Oria y EDP encaminados a tratar de evitar la suspensión del suministro de electricidad o de gas a los Beneficiarios –definidos en la Cláusula Segunda- por razón del impago de determinadas facturas, o en caso de suspensión, a asegurar su inmediato restablecimiento, en virtud de la prestación económica de ayuda social que el Ayuntamiento de Lasarte-Oria concederá al Beneficiario para el pago de la factura o de las facturas de que se trate, siempre y cuando cumpla los requisitos legalmente establecidos y haya crédito adecuado y suficiente, para el pago de estas facturas.

SEGUNDA.- Beneficiarios

1. El presente Convenio será de aplicación a las personas físicas clientes de EDP, en relación con el suministro de electricidad o de gas en su vivienda habitual ubicada en el término municipal de Lasarte-Oria, que, previa valoración técnica y solicitud de los Servicios Sociales municipales y en atención a sus circunstancias objetivamente constatadas de extrema vulnerabilidad económica, puedan ser objeto de ayuda económica por parte del

| | |
|---|---|
| baldintzak betetzen badituzte. | Ayuntamiento de Lasarte-Oria. |
| 2. Enpresa banatzaileak kontsumitzaileari egotz dakiokeen sare-konexio iruzurti bat edo neurketa-ekipoaren manipulazio bat hautematen dituen kasuak Hitzarmen honetatik salbuetsita geratuko dira. | 2. Quedarán excluidos de este Convenio los casos en los que se detecte por la empresa distribuidora una situación de conexión fraudulenta a la red o manipulación del equipo de medida atribuible al consumidor. |
| 3. Hitzarmen honetatik salbuetsita geratuko dira, halaber, Hitzarmen honek estalitako faktura berberen ordainketari aurre egiteko antzeko beste hitzarmen batzuetara jotzen duten kontsumitzaileak. | 3. También quedarán excluidos del Acuerdo los consumidores acogidos a convenios similares que afecten al pago de las mismas facturas cubiertas por este Acuerdo. |
| HIRUGARRENA.- Jarduteko prozedura | TERCERA.- Procedimiento operativo |
| 1. Lasarte-Oriako Udalak, oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez, pertsona edo familia bat elektrizitatearen eta/edo gasaren faktura jakin batzuk ordaintzeko zailtasun larriko zaurgarritasun-egoeran aurkitzen dela hautematen duenean, pertsona edo familia horrek bizi duen egoerari buruzko balioespen tekniko bat egingo du, arauzko espedientea abiarazi ondoren, ikusteko ea prestazio ekonomiko baten onuradun izan daitekeen, elektrizitatearen eta/edo gasaren hornidurak eragindako zorra kitatu ahal izan dezan. | 1. Cuando el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, a través de los Servicios Sociales municipales, detecte el caso de una persona o familia en situación de vulnerabilidad con serias dificultades para el pago de determinadas facturas de electricidad y/o de gas, realizará una valoración técnica de la situación en que se encuentra esa persona o familia para determinar, previa instrucción del expediente preceptivo, si puede resultar beneficiaria de una prestación económica destinada a la satisfacción de la deuda derivada del suministro eléctrico y/o del gas. |
| 2. Horrela baldin bada, xehetasun hori EDPri jakinaraziko dio, laguntzaren balizko onuradunari baimena eskatu ondoren, [redacted] helbidera posta elektroniko bat bidaliz, eta bertan, horniduraren helbidea, kontratuaren zenbakia, horren titularraren izena eta IFZ eta harremanetarako telefono bat adieraziko ditu, baita laguntzaren xede diren fakturen erreferentzia eta zenbatekoa ere. | 2. Si así fuese, pondrá tal circunstancia en conocimiento de EDP, previa autorización del posible beneficiario de la ayuda, mediante correo electrónico dirigido a [redacted] identificando la dirección del suministro, el número de contrato, el nombre y NIF del titular del mismo y un teléfono de contacto, así como la referencia e importe de las facturas objeto de la ayuda. |

| | |
|---|---|
| 3. Jakinarazitako horiez gain ordaintzeko dauden beste faktura batzuk baldin baditu, EDPk Lasarte-Oriako Udalari horien berri emango dio, egoki baldin bada prestazio ekonomiko horren barruan sar ditzan. | 3. En caso de existir otras facturas pendientes de pago al margen de las comunicadas, EDP lo pondrá en conocimiento del Ayuntamiento de Lasarte-Oria para su inclusión, si procede, en la prestación económica. |
| 4. EDPk hitzematen du, zor diren fakturak ordaintzeko xedea duen laguntza hori eman izana berretsiz Lasarte-Oriako Udalaren jakinarazpena jasotzen duen unetik bertatik, Onuradun horri elektrizitatearen eta/edo gasaren hornidura mantenduko diola, edo jakinarazpena jaso aurretik hornidura esekita baldin badago, dagokion banatzaileari hornidura lehenbailehen berrezarri dezala eskatuko diola, eta hori, oro har, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo hogeita lau orduen barruan egin ahal izango du. | 4. EDP se obliga a mantener el suministro de electricidad y/o gas a dicho Beneficiario a partir del momento en que recibe la comunicación del Ayuntamiento de Lasarte-Oria confirmando la concesión de la ayuda destinada al pago de la factura o facturas adeudadas, o en caso de ya estuviese suspendido el suministro antes de recibir la comunicación, a solicitar de modo inmediato al distribuidor que corresponda el restablecimiento del suministro, lo cual por lo general será posible dentro de las veinticuatro horas siguientes a la recepción de tal notificación. |
| 5. Egoera hori gehienez ere hiru (3) hilabetez mantenduko da elektrizitatearen araudian (abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 85. artikulua) eta gasarenean (abenduaren 27ko 1434/202 Errege Dekretuaren 57. artikulua) aurreikusitako ordainketaren errekerimendu sinesgarria bezeroari bidaltzen zaionetik hasita, edo gehienez ere hilabete bateko (1) epean esekitako horniduren kasuan, berrezartzeko eskaera egiten den datatik hasita, laguntza hori kudeatzeko eta ordaintzeko astia egon dadin. | 5. Esta situación se mantendrá durante un máximo de tres (3) meses desde el envío al cliente del requerimiento fehaciente de pago previsto en la normativa eléctrica (artículo 85 del Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre) y de gas (artículo 57 del Real Decreto 1434/202, de 27 de diciembre), o durante un máximo de un (1) mes desde la fecha de la solicitud de reposición en el caso de suministros suspendidos, para dar tiempo a la gestión y pago de la ayuda. |
| 6. EDPk, halaber, hitzematen du kasu horietan ez duela inolako interesik, komisiorik edo bestelako gastu gehigarririk ordain dadila eskatuko. Esekitako horniduraetan banatzaileak eskatu dezakeen birkonexio-gastuak | 6. EDP también se obliga a no exigir en estos casos el pago de ningún tipo de intereses, comisiones u otros gastos adicionales. Quedan exceptuados los gastos de reconexión que pueda exigir el distribuidor en |

| | |
|---|---|
| salbuetsita geratuko dira. | los suministros suspendidos. |
| 7. Onuradunak laguntzaren xede diren faktura zordunak EDPri ordaindu ondoren, onuradunak ordainketa horren egiaztagiria aurkeztu beharko dio Lasarte-Oriako Udalari, hark, aldi berean, xehetasun hori EDPri jakinarazi ahal izan diezaion, helbidera posta elektroniko bat bidaliz. | 7. Una vez efectuado el pago a EDP por parte del Beneficiario de las facturas deudoras objeto de la ayuda, éste deberá aportar justificante del referido abono al Ayuntamiento de Lasarte-Oria para que ésta, a su vez, comunique dicha circunstancia a EDP mediante correo electrónico dirigido a [redacted] |
| 8. Baldintza honen 5. apartatuan ezarritako epea igaro ondoren, Onuradunak ez badu aurreko paragrafoan ezarritako zenbateko osoaren ordainketa gauzatu, EDPk hornidura esekitzeko prozedura berriro abian jartzeari ekingo dio eta hori ordaindu ez izana urraketatzat joko da zortzigarren baldintzan ezarritakoaren ondorioetarako. | 8. Si transcurrido el plazo establecido en el apartado 5 de esta cláusula, por parte del Beneficiario, no se hubiera producido el pago de la totalidad del importe establecido en el párrafo anterior, EDP procederá a reactivar el proceso de suspensión del suministro y este impago se considerará un incumplimiento a los efectos de lo establecido en la cláusula octava. |
| 9. EDPk onuradunari aholku indibidualizatuak eskainiko dizkio elektrizitatearen eta gasaren kontratuak hobetzeko aukera desberdinen inguruan, esate baterako kontratatutako potentziaren benetako erabilerara egokituz, eraginkortasun energetikoa sustatzen duten jarduerak proposatuz eta gizarte-bonuari buruzko informazioa eskainiz. Horrez gain, EDPk bezeroaren esku jarriko du, esklusiboki eta doan, 900 907 000 telefono-zenbakia, eta horren bidez informazio eta aholku indibidualizatuak erdietsiko dituzte Hitzarmen honek jorratzen dituen gai-arloen inguruan. | 9. EDP asesorará de forma individualizada al beneficiario en relación con diferentes posibilidades de optimización de sus contratos de electricidad y gas, como es la adaptación de la potencia contratada al uso real de la misma, con propuesta de actuaciones que fomenten la eficiencia energética y con información sobre el bono social. Adicionalmente EDP pone a su disposición, con carácter gratuito, el número de teléfono 900 907 000, en el que obtendrán información y asesoramiento personalizado en relación con las materias a las que se refiere este Convenio. |
| 10. Hitzarmenaren balizko onuradun batek zuzenean EDPra jotzen badu bezeroentzako arreta-bideetatik edozein erabiliz Hitzarmen honetara atxikita geratu dadila eskatzeko, EDPk Hitzarmeneko jardunbideari buruzko | 10. En los casos en los que un potencial beneficiario del Convenio se dirija directamente a EDP por cualquiera de sus canales de atención a clientes para solicitar acogerse al Convenio, EDP le facilitará la |

| | |
|---|---|
| oinarrizko informazioa eskainiko dio, baita Udaleko Gizarte Zerbitzuen harremanetarako datuak ere, eskabide hori izapidetu ahal izan dezan. | información básica sobre la operativa del Convenio y los datos de contacto de los Servicios Sociales municipales para que pueda tramitar dicha solicitud. |
| 11. EDP prest dago elektrizitate-kontsumoaren eta gas-kontsumoaren aurrezpenarekin loturiko alderdi desberdinei buruzko aholkuak, informazioa eta prestakuntza eskaintzeko Lasarte-Oriako Udalari. | 11. EDP se ofrece a facilitar al Ayuntamiento de Lasarte-Oria asesoramiento, información y formación sobre distintos aspectos relacionados con el ahorro del consumo eléctrico y de gas. |
| **LAUGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuak babestea** | **CUARTA.- Protección de datos de carácter personal** |
| Bi Aldeek hitzematen dute Hitzarmen hau betez burutzen dituzten jarduerak izaera pertsonaleko datuen babesa arautzen duen legeria zorrotz betez egingo dituztela. | Ambas Partes se comprometen a que, en las actuaciones que realicen en cumplimiento del presente Convenio, se cumplan estrictamente la legislación reguladora de la protección de datos de carácter personal. |
| Onuradunei buruzko informazioak izaera konfidentziala du, eta EDPk nahitaez bermatu behar du Hitzarmen hau betetzeko behar-beharrezkoak diren pertsonek bakarrik eskuratu ahal izango dituztela datu horiek, eta bertan jasotako informazioari ez diola beste helbururik emango, bertan aurreikusitakoa bete dadila eskatzea baino. | La información relativa a los Beneficiarios tiene carácter confidencial, obligándose EDP a que únicamente accedan al mismo las personas que sean estrictamente imprescindibles para el cumplimiento del presente Convenio y a no dar a la información contenida en aquélla una finalidad distinta de la exigida para la ejecución de lo previsto en el mismo. |
| Lasarte-Oriako Udalak Onuradunaren onespena eskatuko du haren datu pertsonalak EDPri jakinarazteko, Hitzarmen honen onuradun izateko eta hori gauzatzeko helburu bakarrarekin, eta halaber, Hitzarmena indarrean dagoen bitartean EDPk Lasarte-Oriako Udalari hori betetzeko beharrezkoak diren datuak jakinarazteko. | El Ayuntamiento de Lasarte-Oria recabará el consentimiento del Beneficiario para comunicar sus datos personales a EDP con la finalidad exclusiva de que pueda ser beneficiario del presente Convenio y permitir su ejecución, así como para que EDP comunique al Ayuntamiento de Lasarte-Oria los datos necesarios durante la vigencia del Convenio para el cumplimiento del mismo. |
| **BOSGARRENA.- Hitzarmenaren aplikazioa eta jarraipena** | **QUINTA.- Aplicación y seguimiento del Convenio** |
| 1. Hitzarmen honen jarraipenerako Batzorde bat | 1. Se creará una Comisión de seguimiento del |

| | |
|---|---|
| eratuko da, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko bina (2) ordezkarik osatua, eta Batzorde horrek bertan aurreikusitako obligazioen jarraipena egingo du, horren interpretazioan eta aplikazioan sor daitezkeen gaiei konponbide bat ematen ahaleginduz. | presente Convenio integrada por dos (2) personas delegadas por cada una de las instituciones firmantes, que llevará a término el seguimiento de las obligaciones previstas en el mismo, tratando de resolver las cuestiones que pudieran surgir en su interpretación y aplicación. |
| 2. Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo 5 egunen barruan, Aldeetako bakoitzak Solaskide bat izendatuko du eta beste Aldeari izendapen horren berri emango dio, Seigarren Baldintzarekin bat etorriz. Bi Aldeetako Solaskideek elkarrekin ados jarrita zehaztuko dituzte Hitzarmen hau aplikatzeko eta bertan jasotako helburuak erabat betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen gai tekniko eta instrumental guztiak. | 2. Dentro de los 5 días siguientes a la firma del presente Convenio, cada una de las Partes designará un Interlocutor y notificará tal designación a la otra Parte conforme a la Estipulación Sexta. Los Interlocutores de ambas Partes concretarán de común acuerdo cuantas cuestiones técnicas e instrumentales sean necesarias para la aplicación del presente Convenio y el pleno cumplimiento de los objetivos del mismo. |
| 3. Nolanahi ere, Laugarren Baldintzan aipatutako konfidentzialtasuna bermatzeari begira eta Hitzarmena gauzatu dadila errazteko asmoz, bi Aldeek, beren Solaskideak horretarako ados jarrita, bertan xedatutakoa gauzatzeko beharrezkoa den informazioa trukatzeko bide berezi eta zehatzak finkatuko dituzte. | 3. En todo caso, con la finalidad de garantizar la confidencialidad aludida en la Cláusula Cuarta y al objeto de facilitar la ejecución del Convenio, ambas Partes establecerán, mediante acuerdo de sus respectivos Interlocutores, canales específicos y exclusivos de intercambio de la información requerida para la ejecución de lo dispuesto en aquél. |
| SEIGARRENA.- Jakinarazpenak<br>Hitzarmen honekin loturiko jakinarazpenak ondorengo pertsonengana eta posta elektronikoko helbideetara zuzenduko dira: | SEXTA.- Notificaciones<br>Las notificaciones relativas al presente Convenio se dirigirán a las personas y direcciones de correo electrónico siguientes: |
| • Lasarte-Oriako Udalari dagokionez:<br>[redacted] | • Por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria:<br>[redacted] |
| • EDPri dagokionez: | • Por EDP: |

| [redacted] | [redacted] |
|---|---|
| ZAZPIGARRENA.- Indarraldia | SÉPTIMA.- Vigencia |
| Lankidetza Hitzarmen hau sinatzen den unetik bertatik izango du eragina, 2016ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean, eta urteko epealdika tazituki luzatuko da (urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte), baldin eta Aldeetako batek ez badu idatziz hura amaiarazteko eskatzen, betiere indarraldia amaitzeko eguna baino hiru hilabete lehenago gutxienez, hurrengo baldintzan ezarritakoaren kontra joan gabe. | El presente Convenio de Colaboración surtirá efectos desde el momento de su firma y tendrá vigencia hasta el 31 de diciembre de 2016, prorrogándose tácitamente por periodos anuales (desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre) si ninguna de las Partes formula denuncia por escrito, y con una antelación mínima de tres meses a la fecha de finalización del plazo de vigencia, sin perjuicio de lo establecido en la cláusula siguiente. |
| ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena amaiaraztea | OCTAVA.- Resolución del Convenio |
| Aurreko baldintzan ezarritakoaren kontra joan gabe, Hitzarmen hau amaiarazteko arrazoi izango dira ondorengoak: | Sin perjuicio de lo establecido en la cláusula precedente, serán causas de resolución del presente Convenio: |
| - Bi aldeen arteko adostasunez horrela erabakitzea.<br>- Dagozkion konpromisoak betetzea ezinezkoa egingo duen arrazoien bat gerora agertzea<br>- Aldeetako bati egotz dakiokeen konpromiso-urraketaren bat. | - El mutuo acuerdo de las Partes<br>- La imposibilidad sobrevenida que afecte al cumplimiento de los respectivos compromisos<br>- El incumplimiento de los mismos imputable a alguna de las Partes. |
| BEDERATZIGARRENA.- Erregimen juridikoa eta jurisdikzioa | NOVENA.- Régimen jurídico y jurisdicción |
| Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aplikazio-eremutik salbuetsita dago hitzarmen hau, bertako 4.1.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. | El presente Convenio queda excluido del ámbito de aplicación del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, de conformidad con lo establecido por su artículo 4.1.d). |
| Hitzarmen honetan xedatutakoak eta, horrez gain, | La actuación de las Partes se regirá por lo |

| | |
|---|---|
| Lasarte-Oriako Udalaren jarduera eta energia-hornidura arautzen duen legeria orokorrak arautuko du Aldeen jokabidea.<br><br>Hitzarmen honen interpretazioan eta aplikazioan gerta daitezkeen desadostasunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoetarako jurisdikzio-ordenako organo eskudunak ebatziko ditu.<br><br>Eta, adostasunaren froga gisa, Hitzarmen hau ale bikoiztuan eta ondorio bakarrarekin izenpetu dute, burualdean adierazitako egunean eta tokian. | dispuesto en el Convenio y, supletoriamente, por la legislación general reguladora de la actuación del Ayuntamiento de Lasarte-Oria y del suministro de energía.<br>Las controversias que puedan producirse en la interpretación y aplicación del presente Convenio serán conocidas por el órgano competente del orden jurisdiccional contencioso-administrativo.<br><br>Y, como prueba de conformidad, se firma el presente Convenio por duplicado ejemplar y a un solo efecto en la fecha y lugar indicados en el encabezamiento. |
| Lasarte Oriako Udalaren izenean<br>Por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria | EDPren izenean<br>Por EDP |
| Alkatea<br>*El Alcalde* | Eragiketen eta Zerbitzuarentzako Zerbitzuen Zuzendaria<br>*Director de Operaciones y Servicios al Cliente* |
| | |
| Jesús Zaballos de Llanos | Carlos Luengos Álvarez |